



EKONOMIA FEMINISTA

Bizitza erdigunean, eta ez merkatu kapitalista

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana
- Urola Garaiko esperientzia
- **Elkarrizketa:** Amaia Perez Orozco eta Carlos Askunze



INIGO AZKONA

Amaia Perez Orozco eta Carlos Askunze, "Subversión feminista de la economía" eta "Bizitzaren iraunkortasuna. Ekonomia solidario, feminista eta ekologikoan oinarrituz eginiko ekarpenak" liburuekin, hurrenez hurren.

Ondo bizi al gara? Horrela bizi nahi al dugu? Denok horrelako bizitza izateko aukera al daukagu? Eta emakumeak duintasunez bizi al gara? Ekonomia feministak sustraieraraino arakatu nahi du gaur egungo sistema kapitalista. Teoria kritiko horren ustez, merkatuetan oinarritzen den eredu kapitalistak ederki asmatu du merkatuak iraunarazteko atzean behar den egitura guztia ezkututzen. Hitz bitan esanda, mundu produktiboa eta erreproduktiboa banatuak ditu; lehena oraindik ere gizonentzakoa, ezinbestekoa, eta bigarrena emakumeek sostengatua, nahita ahaztua, gutxietsia.

Ekonomia feministak bizitzaren erdigunetik merkatu kapitalista kendu eta denon artean adostuko dugun bizimodu duina ezartzea proposatzen digu. Pentsaera kritiko hori bidelagunekin datorkigu; ekologismoari eta ekonomia solidario eta sozialari eskutik helduta. Horren adibide da LARRUN honetako lehen zatia, Amaia Perez Orozco eta Carlos Askunzeri egindako elkarrizketa. Teoriatik praktikara joko dugu ondoren, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana* ezagutuko dugu. Urola Garaian alternatiba ekonomikoak lantzeko ematen ari diren urratsak ere kontatuko ditugu.



Egilea: Onintza Irureta Azkune

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.eus **Telefona:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIaren 2.443. zenbakiarekin banatua, 2014ko abenduaren 28an)

Ondo bizitzea zer den esateko garaia

Amaia Perez Orozcori¹ ekonomia feministaz jarduteko elkarriketa eskatu genion. Ez zuen bakarkako elkarriketa onartu. Ekonomia feministaz eta ekonomia solidario eta sozialaz, bietaz batera aritu nahiago zuen. Izan ere, bizitza ulertzeko modu bat zein bestea gero eta gehiago ari dira elkarrekin bideak urratzen. Beraz, Carlos Askunze² ere izan dugu solaskide.

Ikuspegi aldaketa proposatzen duzue: bizitzaren jasangarritasuna erdigunean kokatzea. Zer dago orain erdigunean?

Amaia Perez Orozco: Merkatu kapitalistaren prozesuak daude. Beste modu batean esanda, nola ulertzen dugu mundua? Ekonomia dirua baino ez dela pentsatzen dugu, diru-fluxuak dauden tokietan baino ez dagoela; lan bakarria ordaindutakoa dela; ongizatea edukitzea merkatuan kontsumitzea dela. Mundua antolatzeke modu horren adibide txiki bat ematearren, bizitzako denbora erritmoak enpresek zehazten dituzte, ez bizitzak berak. “Krisia”n garbi ikusi da, baliabide publikoak merkatu prozesuak berreskuratzeko erabili dira, merkatuek zehazten dute gizarteak nola aritu behar duen. Eta harago jotzen badugu, merkatuak gure aldarrikapen politikoen erdigunean ere badaude: helburu nagusi bihurtzen da soldata igoera eskatzea, edo enplegua eskatzen baino ez dakigu. Aldarrikapen horiek guztiek merkatua dute oinarri. Horregatik diogu ikuspegia aldatu behar dugula, eta erdigunean merkatua jarri beharrean, bizitza jarri behar dugula. Konturatu behar dugu ekonomia bada goela merkatutik kanpo, lan asko daudela dirurik mugitzen ez dutenak, ordaintzen ez direnak, baina bizitzarako beharrezkoak. Gauza bat da merkatuak bizitzari eragitea eta beste gauza bat bizitza merkatuen bidez ulertzea eta antolatzea.

Carlos Askunze: REAS Euskadik [ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea] *Bizitzaren iraunkortasuna. Ekonomia solidario, feminista eta ekologikoan oinarrituz eginiko ekarpenak* liburuaren aurkezpena begien bistakoa dena esanez hasi zuen: pertsonok, herriek, gizateriak, bizitza etorkizunean jasangarria izan dadin ardura izan beharko luketela. Birsor dadila bizitza etorkizunean, bizitza bidezkoa, zoriontsua, atsegina. Baina Amaiak esan du, merkatu ekonomia bizitzaren (politikoa- ren, sozialaren, ekonomikoaren, norbanakoaren) erdigunean dago, eta ez alderantziz. Ekonomiak, soziologiak, politikak eta kulturak, pertsonen zerbitzura egon beharko lukete, duin eta zoriontsu bizitzeko, bai norbanakoa baita komunitatea ere. Eta hori guztia ingurumenean txertatu beharko litzateke.

A. Perez Orozco: Bizitzaren jasangarritasuna erdigunean jartzeak gauza bat baino gehiago esan nahi ditu, zein ikuspegitatik begiratzen den. Ekologismoak planeta hartzen du kontuan eta sistema planeta erasotzen ari dela azpimarratzen du. Feminismotik berriz, hala diogu: ezkutuko lan askok eusten dio bizitzari, ez ditugu ikusten merkatura baino begiratzen ez badugu. Feminismoa ezkuturazitako lanak bistara ekartzen aritu da, historikoki batik bat emakumeek eginak. Hausnarketa feministan, beste pauso bat eman dugu ordea, eta gure buruari galdetzen diogun



C. Askunze:

Kapitalismoaren arrakala handienetakoa da sinestea independenteak garela maila guztietan"

gauza bakarra ez da ea nola eusten diogun bizitzari edo nola suntsitzen dugun, baizik eta nola bizitzaz ari garen. Nolakoa behar luke izan bizitzea merezi duen bizitzak? Giza talde moduan nora heldu nahi dugu?

C. Askunze: Lehentasun eta helburu kontua da. Kapitalismoak helburu nagusia etekinak maximizatzea dela esaten digu, bestelako kostuen gainetik: giza kostuak, herrien arteko desberdintasunak, ingurumenekoak.

Beste mundu bat eraiki dezakegula uste duzue beraz. Amaia, *Subversión feminista de la economía* (Traficantes de sueños argitaletxea) liburuan diozun moduan hondamendia saihestu behar da?

C. Askunze: Krisiaren irakurketa mota batera ohitu gara, batik bat erakundeetatik egindakora. Esan digute, ekonomian zerbait ez dela oso ondo ibili, batez ere finantzetan. Alabaina, ekonomia kritikoetatik esaten da lehendik ez dabilela zerbait ondo, eta zibilizazioaren krisira garamatzala. Kapitalismoak krisi globalagora eramán gaitu, ingurumenari, zaintzari, kulturari... eragin die.

A. Perez Orozco: Bizi garen mundua izendatzeko kapitalismoa terminoa erabiltzen dugu, baina ez da kapitalista soilik, heteropatriarkala ere bada, eta kolonialista, arrazista, eta ingurumen ikuspegitik suntsitzailea. Ez dakit nola deitu behar diogun kapitalismoari, niri "gauza eskandalagarri hori" esatea gustatzen zait. Sistema maltzurra da, giza taldeak zein jomuga, zein bizi-

modu, izan behar duen esaten digu: indibidualista, kontsumista, buru askia, planeta biziaren parte garela ukatzen duena eta natura gure zerbitzura dagoela sinestarazten diguna. Mekanismo gaizto horietako batzuk kapitalistaz gain oso patriarkalak dira, indibidualismoa eta buru askitasuna adibidez. Sistema krisian dago maltzurra delako eta bizitza erasotzen duelako. Merkatuen ikuspegitik, krisian gaude haiek errentagarri izateari utzi diotelako, baina bizitzaren ikuspegitik begiratzen baduzu, merkatuek errentagarri izateari uzteak ez dauka zertan arazo izan. Bizitzak aurrera egiten ez duelako daukagu arazoa.

Mugimenduan gaudela diozue.

A. Perez Orozco: Mugimendua [*tránsito* darabilte gartzelaniaz] terminoa ekologismotik dator, eta aldaketa bai ala bai izango da. Dagoeneko mundua aldatzen ari da. Kontua da munduaren aldaketa justizia irizpideen bidez arautu nahi dugun ala merkatu irizpideen esku utziko dugun.

C. Askunze: Valladolideko jardunaldietan, ekonomia kritikoari feminismoak egindako ekarpenak aztertzen aritu ziren. Besteak beste, esparru ekonomikoan, politikoan eta sozialean dauden praktikak irakurtzeko beharraz hitz egin zen. Kontua ez zen sinestea praktika horiek denak batu eta eredu kapitalistari aurre egiteko alternatiba daukagula, baina bai hainbat balore bizimodu jasangarriagoa, autogestionatuagoa, kooperatiboagoa, ekologikoagoa eraikitzeko.

A. Perez Orozco: Mugimenduak ez du esan nahi erreforma edo iraultza aukeraketatik harago joatea?

C. Askunze: Bai noski.

A. Perez Orozco: Erreforma=Dagoena dago. Iraultza: Mahaia hankaz gora jarri eta esku kolpea emango dugu mundu berri bat hasteko. Mundu berri bat nahi dugu, baina mundu berri horretarako bidea egiten ari gara.

C. Askunze: Saiakera praktikoena horregatik aipatu dut. Ezker erreformatzaileenak aukera hori bazter utzi izan du, baina nik uste dut pentsaera hori albo batera utzi behar dugula, oso ezkorra da eta ezer egiteko gogorik gabe uzten zaitu. Gainera, ez daukagu munduaren botere orokorra eduki arte zain egon beharrik, ekoizpenean, kontsumoan, baita finantzetan ere, badira saiakerak zeinak frogatzen duten bizi gaitezkeela beste modu batez.


Amaia, liburuaren sarreran bi hipotesi azaltzen dituzu. Lehenengoak dio bizitza zaurgarria dela eta elkarren babesean moldatu behar garela. Bigarrenak dio ondo bizitzeko denoi balioko digun markoa aurkitu behar dela, eta aniztasunak ez duela desberdintasunik eta bazterketarik eragin behar.

A. Perez Orozco: Bizitzari eustea erdigunean jarri nahi dugu eta gure buruari galdetu nahi diogu ea nolako bizitza nahi dugun, baina gauza batzuk badira, bai ala bai. Bizitzeko oinarritzko baldintzak behar dira, bizitza zaurgarria da. Beraz, bizitzeko modu bakarra pertsona batzuk beste batzuekin bizitzea da, elkarrekin, horregatik diogu elkarren menpekotasuna dugula. Eta ez dadila gaizki ulertu, kontua ez da indibidualismoaren ideala apurtzea interdependentzia eraikitze-ko, baizik eta indibidualismoaren ideala apurtu behar dugu, hain zuzen, jarrera horrek ukatu egiten duelako interdependentzia daukagula.

Gizakien arteko menpekotasuna azaltzen duen adibideren bat emango mesedez?

Feminismoan asko landu dugun gaia zaintza da. Super autonomia, super buru askia sentitzen zara, heziketa jaso duzulako, karrerak, masterrak eta hizkuntzak daukazazu eta lan merkaturan sartu zara. Amets amerikarra gauzatzen ari zara, hazten ari zara, “pentsio plan pribatua ordaintzen dut, eta ez dut inoren beharrik”. Eta umea zinean nork zaindu zintuen? Eta zahartzen zarenean nork zainduko zaitu? Eta gaixotzen zarenean? Eta lan merkaturan sartu eta bizitza guztia

JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS



Orozcoren ustez, merkatuek errentagarri izateari uzteak ez dauka zertan arazo izan. Bizitzak aurrera egiten ez duelako daukagu arazoa.

horri eskaini behar diozunean zeinek zainduko du zure etxea, zeinek zainduko ditu zure umeak baldin eta umeak badituzu? Ez dago buru askitasunik, besteen beharra duzu. Are gehiago, baka-rik moldatzen zarela sinetsita, jasotzen ari zaren laguntzaren balioa ukatzen ari zara. Atzerago joko dut, nahiz eta agian oinarritzkoegia izango den. Eredu hori non lan merkatura doan gizona eta soldata lortzen duen eta emakumeak berarekiko dependentzia duen. Esaten genuen dependentzia hori ez dela egiazkoa. Gizonak emakumearen beharra dauka, emakumeak gizon horren



A. Perez Orozco:

Ekonomia feminista akademiako horma gainditzen ari da, eta are gehiago, ekonomia sozial eta solidarioarekin loturak egiten ari da. Ekonomia sozial eta solidarioko jende asko ari da galdetzen ea haien praktikak feministak diren

beharra duen bezalaxe. Elkarren beharra dutenen arteko harremana da. Baina ez da ikusten, gizona da lanean ikusten den bakarra eta emakumea dependentea da. Horregatik, gizonak erretiro eskubidea du, beretzakoa, eta emakumeak alargun eskubidea du, deribatua, dependente izan delako. Zaintzan asko ikusi dugu eta orain krisiarekin asko ikusten da jende askok sinesten zuen amets amerikarraren arrastoa. Ikusten dute bizitza hautsi egiten dela, merkatua hondoratu egiten dela eta zu berarekin, eta zer geratzen zaizu? Familia sareak. Hor babesten zaituzte. Eta interdependentzia ez da familia sarean konpondu behar, sare askoz zabalagoan baizik. Eta ikusi egin behar dira amankomunean jartzen diren lan guztiak eta ez batzuk ukatu eta beste batzuk gainbaloratu.

C. Askunze: Pertsonak jaiotzen garenez gero dependenteak gara, jakina da, baina sinetsarazi digute edo sinetsi dugu independenteak garela, adibidez, ez dugula baliabide naturalen beharrik. Ingurumenaren beharra daukagu, baina ez dugu sinetsi. Zaintzan dependentsia handia izan dugu, eta batik bat emakumeek egin dute hori dena.

Kapitalismoaren arrakala handienetakoa da sinestea independenteak garela maila guztietan. Elkarbanatu ditugun espazioak ere galtzen ari gara. Garai batean, langileentzat fabrika zen espazio komuna, orain ez. Auzoak komunita-

teentzako gune ziren. Amaiak dioen moduan, espazio horiek erortzen direnean, eta arazoak eta krisiak daudenean, lana galtzen duzunean, familiara itzultzen zara; badirudi iraun dezakezun komunitate espazio bakarra dela. Beraz, bizitzak berreraiki nahi dira interdependentzia oinarri hartuta, interdependentzia pertsonen artean, interdependentzia ingurumenarekin...

A. Perez Orozco: Bizitza interdependentea da, nahi ala ez. Eta gizarteak nola konpondu du gai hau? Subjektu batzuei autonomia ukatuta, batik bat emakumeei. Beraz, pertsona bat merkatura atera dadin, ustez oso buru askia izan dadin, eta bere burua eta bere familia manten ditzan, zer dago atzean? Besteengatik sakrifikatu den emakumea, zaintza lan mordoan doan egiten eta baloratu gabe. Bizitzeko autonomia ukatu diote, ez dauka autonomia finantzariorik, ez eskubide sozialik, ezta onarpen sozialik ere. Beraz, interdependentzia desberdintasunaren bizkar eta jende askoren autonomiaren ukazioaren bidez konpontzen da. Feminismoarentzat ukaezina da autonomia mantentzea, zeren ikuspegi askotatik komunitatea asko baloratzen da, baina nolako komunitateaz ari gara hizketan, kontrolatzen duen, zure gorputzaz gozatzen uzten ez dizun komunitateaz? Hortaz, nola konbinatu elkarrekiko beharra eta norberaren autonomia? Iruditzen zait batzuetan ekonomia sozial eta solidarioetan autonomia kontzeptuak ez duela nahikoa indar, eta feminismoak asko azpimarratzen du ideia hori.

Eraikiko litzatekeen bizitza eredu berria unibertsala eta berezitasunak kontuan hartuko lituzkeena izango litzatekeela diozu. Zer esan nahi du horrek?

A. Perez Orozco: Nolako mundua nahi dugun pentsatzeko eztabaida ez dugu orrialde zuritik abiatuta egingo, ikuspegi kritiko asko gaude marra gorrietatik pasatzeko prest ez gaudenak. Bizitza merezi duen bizitza zer den eztabaidatu beharko dugu, definizio berri bat aurkitu beharko dugu, baina hori balekoa izango da baldin eta mundu guztiak hortaz baliatzeko aukera izango badu.



A. Perez Orozco:

Lan merkatuan arrakasta itzela daukat, bizitza eskainiko diot lanari... eta zu horretara zauden bitartean zein arduratuko da egiteko dauden beste lan horiez guztiez? Ideal horiek ezinezkoak dira"

Marra gorriena azalduko hobeto, mesedez?

A. Perez Orozco: Definizio berri horretan herri-tar guztiek izan behar dute tokia. Adibidez, bizitzea merezi duen bizitzaren definizioan egunero nire etxea garbituko duen etxeko langilea edukitzea sartzan bada, mundua bitan banatuko litzateke: etxeko langileak direnak eta etxeko langileak dituztenak. Hori dena bizitza ereduaren definizio berrian sartzan al da? Beste adibide bat ematearren, denon eskura egongo ez diren energia eta natur baliabi-deak behar dituen bizitza ereduak balio digu? Ez. Horregatik izan behar du unibertsa, bizimodu onak ezin du izan batzuentzat, eta besteen bizkar. Berezitasunak kontuan hartu behar direla diogunean esan nahi duguna da bizitza ez dela gauza bera denontzat, pertsona guztientzat, ez munduko toki guztietan. Diferentziak eta aniztasuna errespe-

tatu behar dira. Ez litzateke eredu stalinista, orain denak jertse urdinarekin. Denak berdin.

C. Askunze: Marra gorriek munduko edozein tokitan pertsona guztien eskubideekin dauka zerikusia: giza eskubideak, oinarritzko eskubideak, ura eta hezkuntza denentzat. Ezin dira gizarteak desberdintasunetik eraiki, ez gizarte barruan, ez gizon eta emakumeen artean, ez gazte eta hirugarren adinekoen artean, ezta herrien artean ere. Hortaz ari gara marra gorriez ari garenean. Kontsumoaren gaia argia da, ezinezkoa da. Zenbat planeta beharko lirateke denok kotxea, garbigailua, argindarra kontsumitzeko? Ezin da. Birbanaketa behar da.

A. Perez Orozco: Beste marra gorri bat, lehen aipatu duguna. Lan merkatuan arrakasta itzela daukat, bizitza eskainiko diot lanari... eta zu horretara zauden bitartean zein arduratuko da egiteko dauden beste lan horiez guztiez? Ideal horiek ezinezkoak dira.

Europar, ekonomia feministaz akademia ari da gogoeta egiten eta Hego Amerikan berriz praktika-ra jo dute. Horrela al da?

A. Perez Orozco: Europar, ekonomia feministaz aritzea akademiatik etorri dela iruditzen zait. Hego Amerikan berriz, emakumeak ekonomian egiten ari

ARRASATE ANDREDETAN:

**Arrasateko emakumeen partehartze
soziopolitikoaren sustatzeko tresna berria**



ARRASATEKO UDALA



C. Askunze:

Zibilizazio krisiaz hitz egin dugu, hondamendiaz, bada hori dena aldatzeko funtzionamendu ekonomiko, politiko eta sozialaren sustraira jo behar da, eta horretan ekologismoak eta feminismoak asmatzen dutela uste dut"

diren praktikei buruz gehiago hitz egiten dute. Gaur egun aldiz, ekonomia feminista akademiako horma gainditzen ari da, eta are gehiago, ekonomia sozial eta solidarioarekin loturak egiten ari da. Ekonomia sozial eta solidarioko jende asko ari da galdetzen ea haien praktikak feministak diren. Bestalde, akademiak mugimendu feministarekin gero eta lotura handiagoa du. Mugimendu feminista ari da sistemaren kritika egiten, eta ez akademiatik. Orain dela bi urte bidegurutzea sumatu nuen, alegia, ekonomia feminista unibertsitatean geratuko ote zen iruditu zitzaidan. 2007an, "krisia" hasi zenean, feminista askok unibertsitatera jo zuen iritzi eske. Eta orain ez, orain mugimendu feministak bere jarrera du "krisia"ri buruz. "Krisia"ren aurrean, ekonomia feministatik, sozialetik eta solidariotik alternatibak jarri dira mahai gainean, ekimenak planteatuz. Zuk zer uste duzu Carlos?

C. Askunze: Jendea ekoizteko, kontsumitzeko, finantzatzeko... modu alternatiboak probatzen ari da. Azken aldian feminismoaren eta ekonomia solidarioaren artean sortzen ari diren elkarguneek horrekin daukate zerikusia. Jada ez dira akademiako eztabaidak, gauzatzen ari garen praktikak egiaz alternatiboak diren ala ez eztabaidatzen ari gara, ea alternatiboak diren modu globalean, ea alternatiboak diren ikuspegi feministatik, ekologiaren ikuspegitik... Bestalde, badira eremuak non akademiako jendea biltzen den mugimendu militantearekin, eta era berean beraz, akademiko horiek

militatzen ere ari dira. Liburua adibidez [*Bizitzaren iraunkortasuna. Ekonomia Solidario, Feminista eta Ekologikoan oinarrituz eginiko ekarpenak*], horren guztiaren topalekua da.

Elkarriketa hasi baino lehen adierazi didazue ekonomia solidarioa eta feminista elkar gero eta gehiago elikatzen ari direla. Uztarketa horren adierazgarri da ekonomia feministaz hitz egitera etorri eta zuek biok batera elkarriketatzea.

C. Askunze: Liburuko lehenengo artikuluan Yolanda Jubetok eta Esther Larrañagak diote ekonomia solidarioa ez dela solidarioa izango ez bada feminista. Ekonomia ekologikoak eta feministak egiteko dauzkaten ekarpenak oso garrantzitsuak dira zeren sustraira doaz. Zibilizazio krisiaz hitz egin dugu, hondamendiaz, bada hori dena aldatzeko funtzionamendu ekonomiko, politiko eta sozialaren sustraira jo behar da, eta horretan ekologismoak eta feminismoak asmatzen dutela uste dut.

A. Perez Orozco: Biak sustraira doaz eta askotan esaten da utopikoak direla, abstraktuak. Aldiz, ekonomia sozial eta solidarioak ahalegin berezia egin du praktika zehatzak gauzatzen asmatzen. Ekonomia feministak eta ekologikoak European, esperientzia zehatzak baino kritika lanketa egin du.

C. Askunze: Ekonomia sozial eta solidarioa ez da mugak ondo markatuta dituen mugimendua, kontzeptu irekia da, praktika mordoa barnebiltzen du, beraien artean oso anitzak. Aldiz, ekonomia ekologikoak eta feministak tradizioa, akademia, dute. Hor dago elkargunea, ekonomia sozial eta solidarioak praktika zehatzak ditu eta ekonomia ekologikoak eta feministak planteamendu erradikalak. Elkarrekin zerbait interesgarria eraiki dezakegu.

- 1 Amaia Perez Orozco. *Subversión feminista de la economía* (Traficantes de sueños argitaletxea) liburuaren egilea.
- 2 Carlos Askunze. REAS Euskadiko (ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea) kidea. ■

Gipuzkoako Foru Aldundiaren II. Berdintasun Plana

Nola gauzatzen da ekonomia feminista erakunde publiko batean

Gipuzkoako Foru Aldundiak *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana 2012-2020*³ dauka indarrean. Plana irakurtzen duena ohartuko da ekonomia feminista ardatz duela, Amaia Perez Orozcorekin hausnarketa ordu dezente elkarbanatu dituztela. Diputazioak, batez ere zergetan, kontratazio publikoetan eta zaintzaren kudeaketan jarri du begirada feminista.

2011ko bukaeran hasi ziren II. Plana lantzen. Etxe barruan, Foru Aldundian alegia, eta etxetik kanpo (mugimendu feministarekin besteak beste) aritu ziren. Urtebeteko lanketaren ondoren, bi helburu finkatu zituen Planak. Batetik, larrialdiei erantzun behar zitzaaien. Jende asko dago bizitza duina izateko baliabide nahikorik ez duena, eta Foru Aldundiaren ardura da baldintza materialak sortzea, besteak beste herritarrek alokairua ordaindu, izozkailua bete eta lana izan dezaten. Bigarren helburua politika publikoak eredu berrirantzko bidea egiteko prestatzea da. Eredu berrian bizitzaren zaintza erdigunean izango da, herritar oro ondo bizitzeko eredurantz pausoak eman behar dira. Eraldaketarako sei lan lerro zehaztu zituzten:

- Nola emango ditugu pausoak bizitza sostengatuko duen ekonomiarantz.
- Zaindu nahi den edo ez, eta nor zaindu erabakitzeko eskubidea eta egokiak diren zainketak jasotzeko eskubidea.

- Nola eraikiko dugu inguru urbanoa, landa eremua, harreman sarea, ingurumena.
- Bortizkeria matxistarik gabeko bizitzak izateko zer egingo dugu.
- Sare feministak eta praktikak nola indartuko ditugu.
- Nola sakonduko dugu demokrazia parte-hartzailean.

Planak kritika erradikala egiten dio gaur egungo eredu kapitalista eta patriarkalari. Helburua ez da eredu ukitu gabe politika publikoetan genero ikuspegia lantzea. Eredua sostengatzen duten egiturak ukitzen dira ikuspegi feministatik, eta ez ikuspegi horretatik bakarrik, baita ekofeministatik, ikuspegi antikapitalistatik, ekonomia sozial eta solidarioaren ikuspegitik. Nolabait irudikatzeko, berdintasun teknikaria ez doa Foru Aldundiko sailez sail “genero ikuspegiaren liburua” besapean duela.



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Gipuzkoako zaharren egoitzetako langileak greban Espainiako Lan Erreformaren aurka.

KONTRATAZIO PUBLIKOAK, ZERGA POLITIKA ETA ZAINTZA

Hiru eremu horiek dira Foru Aldundiak gehien landu dituenak, eskuduntzak dituztelako eta desberdintasuna sortzen duten egituretan eragin handiena dutenak direlako. Esparru bakoitzean hainbat neurri hartu dute eta ondoko lerroetan azalduko ditugu:

Kontratazio publikoetarako araua (berdintasun klausula): Edozein enpresa edo erakundek diru publikoa jasotzeko aukera izan nahi badu baldintza batzuk bete beharko ditu. Ez dago

baloraziorik, neurriak bete egin behar dira derri-gorrez. Neurriak modu honetakoak dira: enpre-sak kontratupean dituen emakumeen lan baldin-tzak hobetu beharko ditu; emakumeentzat lanpostuak sortu kontratu finkoekin; korrespon-tsabilitate eta kontziliazio neurriak hartu; eraso sexistak prebenitzeko neurriak hartu eta gerta-tzen badira esku hartu.

ZERGA POLITIKA

Aberastasunaren eta Fortuna Handien gai-neko Zerga: Aberastasuna zeri deitu moldatu

Kontratazio publikoak, zerga politika eta zaintza dira Foru Aldundiak gehien landu dituen eremuak, eskuduntzak dituztelako eta desberdintasuna sortzen duten egituretan eragin handiena dutenak direlako

dute. Orain arte, herritarraren ondare materiala hartzen zen kontuan zerga ezartzeko eta orain herritarrak enpresatan dauzkan partizipazioak ere kontuan hartzen dira. Gauza bitxi batez ohartu dira aldaketa hori egin eta gero. Aurreko zerga ereduak batik bat emakumeak ziren ondare zutenak, eta oraingo ereduak, adin ertaineko gizonen ondare interesgarria dutela konturatu dira. Foru Aldundiko Berdintasun zuzendari Laura Gomezen ustez, kontraesankorra zen, “Gipuzkoako batez besteko errenta begiratu eta gizon eta emakumeen artean desberdintasuna nabaria zen, baina ondarean adineko emakume alargunengandik biltzea harrigarria zen. Kontzeptua aldatu genuenean, bestelako fortunak aurkitu genituen”.

Sozietateen errenten gaineko zerga: EH Bilduren proposamen hau ez zen onartua izan. Proposamen berriak bi gako zituen. Laura Gomezek adierazi digunez, “gaur egun etekin gehien lortzen duten enpresek zero euro ordaintzen dute praktikan eta zerbait progresiboa jarri nahi izan zen, etekin gehien ateratzen duenak gehiago eman diezaiola gizarteari”. Kenkari fiskal guztiak ezabatu zituzten, bi ezik: Ikerketa, Garapena eta Berrikuntzarako (I+G+B) dedukzioa eta bestea inbertsioetako erreserba-fondoa. Bietan, zeharkakotasunez, genero ikuspegia landu zuten. Dedukzio tarteak izaten dira eta diputazioak enpresei dedukzio tarte handienak lortzea proposatzen zien hainbat neurri betez gero. Hala nola, lanpostuak sortuz gero dedukzioa lortuko zuketean, baina emakume langile oso gutxi dagoen eremuetan emakumeentzako lanpostu finko-

ak sortuz gero, dedukzio tarte handiena lortuko zuketean. Gauza bera emakumea gehiengo den lan esparruetan (zaintza, garbiketa) lan baldintzak hobetuz gero, edo korrespontsabilitate neurriak hartuz gero. Enpresei ondoko mezua helarazi nahi zieten: gizarteak baliabide asko ematen dizkizue (lurra, laguntza ekonomikoak, dedukzio fiskalak), orain ardura sozialez jokatu behar duzue eta gizarteari ekarpenak egin, eta gainera, ikuspegi jakin batetik.

ZAINTZA

Dependentziarako hainbat laguntza ekonomiko daude:

Ingurune familiarrean Zaintzeagatik Diru-laguntza (IZD): Dependentsia duen pertsonaren inguruko zaintzaileak jasotzen du, gehiengotik emakumea izaten da, eta batzuetan, egoera administratibo irregularrean dagoen emakumea kontratatzeke erabiltzen da.

Laguntza Pertsonalerako Diru-laguntza (LPD): Pertsona dependenteak jasotzen du.

Laura Gomezek argi zeukan familia giroan sortzen den eredu zalantza jarri beharra zegoela, ia beti emakumea delako zaintzaile. Zaintzaileek, emakumeek alegia, zaintza noiz, non, nola egin erabakitzeke ahalik eta tarte handiena izateko hainbat neurri eskura jartzen saiatu dira. Esate baterako, Laguntza Pertsonalerako Diru-laguntza dependentsia gradu guztietara zabaldu zuten. Eskaintza horren ondorioz, Ingurune familiarrean Zaintzeagatik Diru-laguntza (IZD) eskarek behera egin dute eta LPDk nabarmen gora. Diru-laguntzak, eguneko zentroak, egoitzak... hainbat baliabide jarri dituzte familien eskura, pentsatuz ez dagoela pertsona dependentea zaintzeko eredu bakarra.

Laguntza Pertsonalerako Diru-laguntza jasotzen dutenek zaintzailea kontratatzekotan



Laura Gomez

Gipuzkoako batez besteko errenta begiratu eta gizon eta emakumeen artean desberdintasuna nabaria zen, baina ondarean adineko emakume alargunengandik zergak biltzea harrigarria zen. Kontzeptua aldatu genuenean, bestelako fortunak aurkitu genituen"

hainbat baldintza ezarriko lizkieke diputazioak, baina ez du horretarako eskuduntzarik. Kontentzia balu lan kontratua egiteko irizpideak zehaztuko lituzke. Adibidez, halako soldatetik behera kontratatzea ez luke onartuko edo oporrrak bermatu beharko litzaizkioke zaintzaile profesionalari.

Zaintzaile profesionalak: Pertsona dependenteen zaintzaren kudeaketa (etxeetatik kanpo) ia dena esku pribatuetan dago eta Foru Aldundiak lan hitzarmenak hobetzen egin du lan, hau da, eguneko zentroetako eta egoitzetako langileen lan baldintzak hobetzen laguntzen saiatu da. Soldatetan, atsedean denboretan, txandetan eragin

dute. Espainiako Lan Erreforma indarrean ez jartzea lortu da. Batetik, Foru Aldundiak ekarpen ekonomikoa egin du, eta bestetik, enpresei etekina gutxitzea eskatu zaie.

Sendian programa: Familiako zaintzaileentzat da. II. Planean dimentsio politikoa eman zaio. Orain arte, zaintzaileari zaintzaren emozioak hobeto kudeatzeko tresnak eskaintzea zen programaren helburua. Gomezen ustez, "hori egin behar da, baina zaintzaileari erremintak eman behar zaizkio etxe barruan zaintzaren banaketa negoziatzeko ere. Zaintzaileak ia beti emakumeak dira, eta emakumeok zailtasun handiak izaten ditugu zaintza lanak negoziatzeko; errudun sentitzen gara, bestea zaintzeko hezi gaituzte. Ez dakigu negoziatzen, eta tresnak behar ditugu anai-arrebekin, seme-alabekin, bikotekideekin negoziatzeko".

Hots, etxekoen zaintza lanak gizonen eta emakumeen ardura izatea lortu behar da. Alabaina, Gomez harago doa: "Ezin dugu onartu etxeek zaintzaren ardura osorik hartzea. Erakunde publikoek ardura gehiago izan behar dute, eta merkatuei hau esan behar zaie: Horrela ezin du izan, zuk lan indarra daukazu nonbaiten eta norbaitek zaintzen duelako. Horiek ere bizitza sostengatzeko zerbaite egin beharko dute, ezta?"

3 Berdintasun Plana sarean: Tiki.com/133049 ■

Bizitza erdigunean
kokatuz, zaintza lanak
guztion artean banatuz,
**Jendarte justuago bat
eraiki dezagun.**



Hernaniko
Udala



berdintasun kontseilua

Plaza Feminista,
Aristizabal 7 behea
☎ 943 33 70 17
www.hernani.eus



Harpidetza bakoitzarekin, are independenteago

Sartu www.argia.eus-en eta ezagutu astekaria, bideoak, blogak, Larrun, urtekaria...



Merezi duen bizitza
nahi dugu euskal
herriarrentzat;
helburu hori
erdigunean jartzen
duen proiektu
komunikatiboa gara.

Euskarazko kazetaritza independente eta konprometitua

Oinarriak: Euskaltzaletasuna, parekidetasuna, giza eskubideen defentsa, kulturaliztasuna, auzolana, ekonomia soziala, herrien mundua, elikadura burujabetza, demokrazia zuzena, desazkundea, erabakitze eskubidea, trukea, sexu askatasuna, creative commons, osasun eta hezkuntza publikoa, desobedientzia zibila, oroimen historikoa...

argia Harpidetza etxean
jaso nahi dut

- ☐ ARGIA astero jasotzeko aukera*: hilean 12 € baino ez (145 € urtean. Ordainketa bi zatitan egiteko aukera).
- ☐ ARGIA hilean behin jasotzeko aukera**: hilean 4 € baino gutxiago (41 € urtean).

*46 zenbaki + 11 Larrun + Urtekaria / **11 zenbaki + 11 Larrun

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (24 digitu)

☐ Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi)
edo 30 urtetik beherakoentzat %25ko deskontua

Postaz bidali / 943 371 545 / harpidetza@argia.eus
www.argia.eus/harpidetza

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ



1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)



ZELO PAREIA
HEMEN IPNII

Urola Garaiko esperientzia

Alternatiba ekonomikoak landu aurretik zapalkuntzaz jabetu

Urola Garaiko mankomunitateko jabeakuntza eskolan hiru talde dituzte: emakume migratzaileena, etxekoren bat zaintzen dutenena, eta indarkeria pairatu dutenena. Alternatiba ekonomikoak baino lehen jabetze prozesuak garatzen dituzte.

Legazpi, Zumarraga, Urretxu eta Ezkio-Itsasoko emakumeak biltzen dira jabetze eskolan. Gipuzkoako eskualde honetako berdintasun teknikaria Aurora Iturrioz da. Aipatutako taldeetan ekonomia feminista nola gauzatzen duten galdezka hasi eta jabetze prozesuez, kontzientziaz eta nortasunak berreraikitzeaz hasi zaigu hizketan. Zein zerikusi du bata bestearik? “Adibidez, familiakoren bat zaintzen ari denak konturatu behar du gaur egungo zaintza lanen ereduak nola mantentzen duen egitura kapitalista. Hori erakusten saiatzen gara”. Alternatiba ekonomikoak gauzatu behar dira, baina konturatu dira bestelako lanak egiteko daudela. Gaurko sistema ekonomikoak emakume horien nortasunak modu zehatz batez eratu ditu. Autoestima ahula dute, aisialdirako denborarik ez. Beraz, jabetze prozesuak garatzen dituzte nortasunetik abiatuta, eta hurrengo pausoa, emakume horien bizitza hobetuz egingo duten alternatiba ekonomikoak gauzatzen saiatzea da. Epe luzeko lana da.

SUA, ETORKINEN TALDEA

Zaintza lanak egiten dituzte hemen. Hango zaintza lanak beste batzuen esku utzi dituzte, asko haurrak han utzita etorri dira. Hemendik kudea-

tzen dituzte hango zaintza lanak. Errudun sentitzen dira, haurrak utzi dituztelako. Erresistentziako ekimen ekonomikoak jarriak dituzte abian:

Trukea: Egunerokoan erabiltzen dute trukea, baina herrira begirako truke merkatua egin izan dute.

Otarra: Taldeko norbaitek duen beharraren arabera otarrean horixe uzten dute: janaria, negurako berokia...

Zozketa: Eman dezagun 2 euroko xaboa erosi dutela. Taldeko hamabi kideek euro bana jartzen dute. Zozketa egin eta irabazleak xaboa jasotzen du. Soberan geratu den dirua beharra duenari ematen zaio.

Aurrezki fondoa: Astero 10 euro jartzen ditu bakoitzak eta astean behin batek 90 euro eramaten ditu. Elkarrekin aurrezteko modu bat da.

Denboraren bankua: Jarri nahi dute martxan, baina Aurora Iturriozen ustez, oraindik jabetze prozesua luzatu beharra dago.

Mikrokreditua: Hasi ziren sistema hori erabiltzen, baina bertan behera utzi zuten. Taldeak

sinbologia kapitalista mahai gainean jarri zuen. Horrela hasi ziren: astero kuota bat jarri eta norbaitek diru premia zuenean (betaurrekoak erosi beharra adibidez) hari ematen zitzaion, gero itzultzeko baldintzarekin. Alabaina, aurreztutako diruarekin kontua ireki nahi zuten eta etekina atera. Mikrokredituak bertan behera geratu ziren. Imaginarioan ditugun ezaugarri kapitalistak txertatuko ez dituzten alternatibak nola sortu hausnartzen ari dira. Iturriozen ustez, jabetze prozesua luzatu behar da, eta agian geroago, berriz ere sortu ahal izango dute mikrokredituen sistema.

Sistema kapitalistak haiengan eragiten duen zapalkuntzaz ohar daitezen ahalegintzen dira jabetze prozesuetan. Alabaina, kontzientzia hartze horrek ondorio gogorak ere izan ditzake. Prozesu horietan negoziatzen ikasten dute eta hainbat etorkin zaintzaile profesionalek lan baldintzak hobetzea lortu badute ere, beste batzuek lana galdu dute.

FAMILIAKOAK ZAINTZEN ARI DIRENAK

Talde honetan parte hartzen duten emakumeek etxeko norbait zaintzen dute. Ez dute baliabiderik zaintzaile profesionala kontratatzeko. Ekonomikoki gaitasuna balute, aurrez aipatu dugun taldeko emakumeak kontratatuko lituzkete. Talde honetan ere, zaintza lanak zenbateraino diren egitura kapitalistaren mantentzaile erakusten saiatzen dira. Egoera ekonomiko oso kaskarrak dituzte emakumeok eta egoera emozional oso txarrak.

Zaintzaren esparruan, lanak nola banatu edo erabakiak hartzeko negoziazioetan, botere harremanak daude. Harreman horietan indarkeria azaleratzen da, indarkeria psikologikoa edo fisikoa, baita hain erraz ikusten ez den hirugarren mota bat ere: zaintza lanak ez dira partekatzen eta kito, emakumearen gain gertatzen dira.

DANI BLANCO



Kontratatzaileekin lan baldintzak negoziatzeko adorea bildu dute zaintzaile diren etorkinek. Bateren batek lana galdu du.

"GURE BURUA MAITATZEN IKASTEN" TALDEA

Indarkeria jasan duten edo jasaten ari diren emakumeak biltzen dira. Ez dituzte alternatiba ekonomikoak abian jarri. Emakumeok autoestima oso ahula izaten dute eta jabetze prozesuak oso luzeak dira. Dimentsio ekonomikoa zeharka agertzen da talde honetan. Batetik, tratu txar ekonomikoak jasaten dituzte. Ez dute diru sarre-
ra zuzenik eta bikotekidearen menpe daude zentzu horretan. Bestetik, psikologikoki ahul daude eta independentzia ekonomikoa lortzeko bideak urratzea ia ezinezkoa zaie. ■

**EMAKUMEEN
BIZITZA
HOBETZEAREN
GAINEAN ENTITATE
PRIBATUEK
~~EZ DUTE~~
ERANTZUKIZUNA
BEREGANATU
BEHARKO DUTE.**